

Euskaraz idatzitako herri aldizkarien ugaltzea Euskara Elkartearen eskutik etorri da gehienbat. Euskal Herriko gizarte zibilak izan du ekimena, beste arlo askotan bezela, euskarazko komunikabideen ezarpenean: prentsa idatzia dela, irratia dela edo telebista dela. Baina euskarazko prentsa idatziaren garapena litzateke azpimarragarriena. Batez ere euskararen normalizaziorako eginkizuneko arloan, EITBk betetzen ez duen eremu bat betetzen duelako. Zeregin honetan EITBren osagarri suertatzen dela esango genuke.

Euskarazko prentsa idatziko herri aldizkariak gaur egungo egoeran ezingo dute indarrik hartu, eta aldizkarigileek alkarrengana hurbiltzea behartuak daude euren proiektua bideragarria egingo duen erakundea egituratzeko.

Joxemari Muxika Arrieta

EUSKARAZKO HERRI KOMUNIKABIDEAK KALITATEAREN GARAIA

ASKOREN ARTEAN, Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldiak: Hitzaldiak. Arrasate: Arrasate Komunikabideak (ARKO) kultur elkarte, 1998; 95 or.

Euskal Herrian euskarazko prentsak eta, oro har, euskarazko komunikabideek inoiz izan ez dituzten indarra eta zabalkundea lortu dituzte 1982tik hona. Euskarazko komunikabideen loraldi honetan badira lau mugarri nagusi: Euskadi Irratiaren sorrera, 1982ko azaroan; ETB1 kanalaren lehenengo emanaldia, 1982ko abenduan; *Arrasate Press* herri aldizkariaren lehenengo zenbakiaren kaleratzea, 1988ko abenduan; eta, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera, 1990eko abenduan. Bestalde, 1980ko hamarraldian Gure Irratia, Irulegi Irratia eta Xiberuko Boza sortzea ere garrantzi handiko gertaera izan zen Ipar Euskal Herrian. Euskarazko komunikabide modernoek sorrera markatzen dute data horiek. Beraz, 1980-90 tarteak euskarazko komunikabideen hamarkada izendatu daiteke inolako zalantza izpirik gabe.

Euskarazko herri prentsa fenomeno sozial moduan *Arrasate Press* astekariarekin batera sortu zen 1988an. *Arrasate Press* sortu aurretik ere bazen herri komunikabiderik, noski. Baina hura sortu zenetik indartsu loratu dira herri komunikabideak gure artean. Prentsa da, segurasko, gehien hedatu eta indartu dena. Dagoeneko asko dira euskarazko aldizkaria, irratia edo telebista duten udalerriak. Euskal Herri osoan aspaldiko hamar urteotan sortu diren herri edo eskualde-aldizkari horiei esker euskal prentsa idatzia sekula izan ez duen zabalkundea lortu du. Argitalpen berri hauek –50 bat, guztira– 120.000 aleko tirada dute eta 450.000 bat irakurlek hartzen dute eskuartearen. Bestalde, maiztasun handikoak dira euskarazko herri-aldizkari gehienak. Izan ere, gaur egun argitaratzen diren berrogeita hamar aldizkarietatik hogeita hamazortzi astekariak, hamaboskariak edo hilabetekariak dira. Bestalde, irratia eta telebistak, poliki bada ere, gero eta zabalduago daude. Esan daiteke herri eta eskualde prentsa Hegoaldean dela indartsu. Iparraldean, berriz, eskualde irratia.

Duela gutxi arte, herri komunikabideren bat sortu nahi zuenak ez zekien nora jo eta askotan Euskal Herriko kanpora joan behar izaten zuen eredu bila. Gaur egun, berriz, nahikoa eredu dago Euskal Herrian bertan ere. Hortaz, bada, orain kontua ez da aldizkari, irati edo telebista bat nola sortu. Komunikabide bat sortu nahi duenak badaki nora jo.

Zein da, baina, euskarazko herri komunikabideen arrakastaren arrazoiak? Eskaintzen duten produktua bera: hau da, informazio hurbila. Albisteek hurbiltasuna da, mundu osoko komunikabide hurbilak aztertu dituzten ikertzaileen iritziz, haien arrakastaren arrazoi nagusia. Dena den, iritsi da garaia kalitatea aintzat hartuta lan egin dezaten. Bezeroa –kasu honetan,

irakurlea, entzulea nahiz ikuslea– gogoan izanda, haren beharrak kontuan hartuta lan egiten ikasi behar dute herri komunikabideek.

Etorkizuneko erronkak kalitatea eta hobekuntza dira. Kalitatea da edozein produkturen arrakastaren faktore nagusietako bat. Komunikabideena ere, jakina. Aurrerantzean horixe izango da irakurleak, entzuleak eta ikus-entzuleak irabazteko modua. Kalitate programak abiatu beharko dituzte, bere produktuak hobetzeko. Etsita nago euskarazko herri komunika-bideen iraupena haien produktuen kalitateari loturik dagoela.

Edukia, diseinua eta euskara bera landu eta hobetu beharko dituzte euskarazko herri aldizkariak, gainerako komunikabideen lehiari aurre egingo badiote. Informazioa da, Ricard Rafeas Kataluniako Eskualde eta Herri Prentsaren Elkarteko lehendakariaren ustez, komunika-bideen kalitatearen gakoa. Informazioak objektiboa, egiazkoa, zorrotza, askotarikoa –iritzi guztiak jasotzen dituen–, gaurkotasan handikoa eta ugaria behar du izan. Informazioaren euskarria ere garrantzitsua da, ordea. Erabateko kalitatea lortzeko, informazioa irakurgarri gertatu behar zaio irakurleari. Itxurak pisu handia du aldizkarien kalitatean. Goio Arana disei-natzaile arrasatearraren ustez, diseinu kontuan asko hobetu du herri prentsak, baina disei-nuak ez du oraindik lortu behar duen tokia. Euskara bera ere bada informazioaren euskarri. Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna kalitatezko informazioaren ezinbesteko osagarriak dira. Irakurleak behin irakurri eta ulertzen ez duen informazioa ez da kalitateko informazioa.

Kalitatea hobetzeaz gainera, beste erronka batzuk ere badituzte herri komunikabideek. Hona hemen Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko uztaillean aurkeztu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotzen direnak:

- Enpresa moduan lan egitea.
- Elkarlana bultzatzea.
- Baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko egiturak eratzea.
- Produktu berriak eskaintzea.

Beste alde batetik, azken urteotan teknologiak erraztu egin du euskarazko komunikabide eta produktu berriak sortzea. Teknologia berriei esker inoiz baino aukera gehiago dago euskarazko komunikabideak abian jartzeko. Gero eta errazagoak dira mikroaudientzientzako produktuak egitea eta zabaltzea. Baina, aldi berean, gero eta eskaintza gehiago jasotzen dute hizkuntza txikietako hiztunek, gehienak bereak ez diren hizkuntzetan. Aurrerakuntza teknologikoek urte gutxitan komunikatzeko eskaintza berriak jarriko dituzte euskaldunon esku eta, horren ondorioz, datozen hamarraldietan murriztu egingo da berez urria den euskarazko komunikabideen eskaintzaren proportzioa. Are gehiago, dinamika horretan lehiatzeko gauza ez diren enpresak eta produktuak desagertu egingo dira. Hortaz, bada, herri komunikabide-ek ere informazioaren mundializazioari aurre egin beharko diote kalitatezko produktuak eskai-niz eta gestioaren etengabeko hobekuntza sistemak ezarriz.

Jose Felix Diaz de Tuesta

HISTORIAS DE LA RADIO VASCA

ARRIETA ALBERDI, Leyre; RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio. Radio Euskadi. La voz de la libertad. Iparralde / 1946-54. Venezuela / 1965-77. Bilbao: Euskal Irrati Telebista-Fundación Sabino Arana, 1998; 331 págs.

Con motivo del cincuenta aniversario del nacimiento de Radio Euskadi, entonces Radio Euzkadi, surgida en 1946, en pleno exilio tras la infausta Guerra Civil, aparece por fin el